



**Fábrica, fábrica:** *iz.* Fabrika, lantegia./ *Fabrikan.* Fabrikan. (JBA, 2004-01-04)

**Fálta:** *ad.* Falta./ *Oillasko bat falta det.* Oilasko bat falta dut. (Oilasko bat falta zaio-la adieraziz) (JBA, 2000-08-09)/ *Ze falta zue? Zer falta duzue?* (JUA, 2004-08-13)/ *Etorri danen falta zon.* Etorri denean falta zuen. (JBA, 2005-01-15)


**Fálta, fáltea:** *iz.* Falta./ *Falta batzuk sartzen.* Falta batzuk sartzen. (Kasu honetan, ilaretan pinuak falta diren tokian pinuak sartzea da, faltak sartzea) (JBA, 2000-02-24)/ *Falta-aldi bat.* Falta-aldi bat. (Katua falta zen une batez) (JBA, 2007-05-01)/ *Fáltatakok.* Faltetakoak. (Hau da, pinudi berrian sartu gabe edo ihartutako pinuen ordez jarri beharreko landare berriak) (JBA, 2004-02-01)

**Fáma, fámea:** *iz.* Fama./ *Fama aundikoa.* Fama handikoa. (JUA, 2003-06-28)

**Famau, famaue:** *izond.* Famatua./ *Alako famaue zan!* Halako famatua zen! (Persona baten gainean) (JBA, 2005-04-24)



› **FARANDONEA.** Farandona sagarra zuhaitzean. (AA, 2008-10-12)



› **FABRIKEA.** Patrizio Etxeberriaren lantegia. Lanean ari dena mutikoa da. (1925 inguruko argazkia)

**Famíli, familie:** *iz.* Familia./ *Famili esperantzan.* Familia esperantzan. (Kumeak izan behar dituen txakur baten gainean) (JBA, 2000-12-16)/ *Familie izan men diñ.* Familia izan omen din. (JBA, 2002-02-23)

**Famósa, famósea:** *izond.* Famatua, emakumezko famatua./ *Famosea.* Famatua. (JBA, 2009-01-04)

**Farándona, farándonea:** **1.** *iz.* Bot. Farandona, sagar mota. *Farandonea.* Farandona. (JBA, 2003-03-30)/ *Farándonea* iraupen handiko sagar mota da. (JBA, 2004-10-02)/ *Farándona.* Farandona. (Sagar mota, lehengo klase bat da) (JBA, 2006-10-06) (ik. **Saar**) **2.** *iz.* Bot. Sagarrondo mota.

**Fárdo, fárdo:** (ik. **Pardo**)

**Farmázi, farmázic:** *iz.* Farmazia./ *Farmazi.* Farmazia. (JBA, 2002-03-02)

**Fár-ra-fár-ra:** *Onom.* Farra-farra, “asko”

adierazten duen onomatopeia./ *Dirue farra-farra daukienak.* Dirua farra-farra daukatenak. (Diru asko dutenak) (JBA, 2008-03-02)



› **FARANDONEA.** Farandona sagar aleak. (AA, 2007-10-24)

## FATXA

**Fátxa, fátxea:** *iz.* Itxura./ *Ze fatxa txarra.* Ze itxura txarra. (JBA, 2002-11-09)/ *Ze fatxa daukien.* Ze itxura daukaten. (Madarien itxuraren gainean) (JBA, 2008-07-19)

**Féde, fedéa:** *iz.* Fedea.

FEDEA EMAN: *ad.* Zerbait sinesteá./ *Oaintxe eman zionat fedea.* Oraintxe eman zionat fedea. (Aurretik sinesten ez zuen gauza bat egiaztatu duenean) (JBA, 2001-10-27)

**Fedédun, fedédune:** *iz./adj.* Erl. Fededuna./ *Fededunek.* Fededunak. (MUA, 2002-04-11)

**Felizitazio, felizitazioa:** *iz.* Zoriontzea./ *Felizitazioa.* Zoriontzea. (Eskutitza) (JBA, 2002-12-27)

**Féri, férie:** *iz.* Feria, azoka./ Santa Lutziko azokan, garai batean, *zaldi ta beorrak geianak* zirela dio, gaur egun garrantzia gutxiago badute ere./ *Ferie.* Feria. (JUA, 1998-12-12)/ *Feri lekun.* Feria lekuan. (JUA, 2001-12-15)/ *Ferie... gozo-ferie.* Feria... gozo-feria. (JBA, 2007-04-08)/ *Illen beiñ Oñatia* joan ohi ziren baserri-tarrak, bertako azokara, lehen ostiralean hain zuzen. Batez ere gizonak joaten zirelako, *gizon ferie* esan dio honi. (JBA, 2007-12-15)

**Férmin:** Fermin, gizon izena./ *Férmin.* Fermin. (JBA, 2004-07-24)

**Ferretéri, ferretérie:** *iz.* Burdindegia, burdinazko tresnak saltzen diren denda./ *Ferretérin.* Burdindegian. (JBA, 2002-11-09)

**Fésta, féstea:** *iz.* Festa./ *Festeá.* Festa. (JUA, 1999-02-12)/ *Fiesteá.* Festa. (MUA, 2003-10-10) (aldea **Fiesta**) (ik. **Mutillo**) (sinonimoa **Jai**, bigarren adiera)

► **Grab. Fiesta:** “Umek giñen garaien, esan dizuana, Mutillora, ta gaiñeakon... Akordatzan naizena da, da gu oi urte baten baiño geigotan jun giñen orra, Gabiria, jai atsalden. Jai atsalden, bezperatik irtenda, e! Bezperak eta danak einda, ez zeon bestela... Eta gero emen, Atagoiittik bera zeon, ba nola esaten da, karretera utzi ta atajue, atajue sartzen tzon, bealaxe Gabiriñ sartzen giñen. Eta an, ba ze ingo gendun ba guk? Bokadillon bat artu, bai, akordatzan naiz ango dendan, ango beste etxe bat, beste itxura batekoa dau oiñ. Ez, in gendun buelta bat eta orduko bentan. Beintzet bokadilloa an artu, ta illuntzako etxen, anjeluse etxea etorri bear zan. Gue fiesteá ola izaten tzan. Urte baten, akordatzan naiz, ordun komediantez etortzen zien plazaa, komeriantek, komerik ittea. Oiñ ez da azaltzen ori, zuek ez daukezue orren ideaike' e. Kantau ta txiste kontau-ta, besten da geo kapelea pasau, da ola. Bai, eun artan, jai artan, emen zeren, (...) zeren. Karo, aik ikusi nai ba. Eta etorri giñen, kuadrillea etorri giñen, etxea etorri ta afarie preparauta eukitze non, bazkarikin batea-edo, or' e serbittu, sukaldea jaso, ta jarri leion, plaza etzeon irtetzeik' e, gauzez etzeon irtetzeik. Bertantxe genduken ba, etxea pare-paren neuken, da emendi orraxe bezelaxe. Eta emen danak jarri eta komerik ikusi, nola eon giñen, ori bai. Orreati ba etorri giñen



► **FESTEA.** Mutiloako festak. Olazar baserrikoak ere inoiz izan ziren Mutiloako festetan, bertara gonbidatuak. (AA, 2008-06-27)

*lentxeo-ta, (...)*”. Santa Lutzia ere ematen zuen festarako aukera: “Zeatik... Gero Santa Lutzitan, Santa Lutzitan, Santa Lutzitan biramunen. Santa Lutzitan eune izaten tzan “*dia de los gitanos*”, esaten ziztaion. (...) etortzen tzien Zaragozatik-eta, Balentziti asko, erosteá, ganau erosteá, beor-*eo*, *zaldi-*edo** erosteá, jente (...), orik kantidadea erosten tzuén. Orik (...) ezkeo, ia gustora danak. Eta “*dia de los gitanos*”. “*Gitanos*” esaten tzien oiri. Urrungo eune izaten tzan gazten eune, urrengo eune. Oiñez jun, oiñez etorri, oiñez. Dantzaik ez gendun eiñ, beida eon. Etzan gutxi izan, (...) bestela (...) pentsau're ez”. Udanan ere dantzaldian egiten zen: “(...), ez gendun dantzaik eitten, dantzaik ez gendun itten, beida eon, bai, jeneralen beida eon, ez gendun dantzaik ez gendun itten... Ez, gaztetxok ez giñen ba, ta ordua. Eta kameluk saltzen zittun batek, gizon bat eoten tzan, ola artu zarea, zarea (...) oitakoa, korreakin lepoti txintxilixka, kameluk. Kamelu batzuk, aik artuko gendutzen, balin bagenduke diruik, zezer: Gizon gizajoa, aizkeneako genditzen tzan, ebie. Baezpa' e jendeak guardasolak in jun, da dantza juteko guardasola nunbait utzi bear, ari bueltan utzi, guardasolak epintze zien, zaren ola. (...) famoso, “que bueno era, que buen hombre era”. Eta beiñ an, Udanako tabernan, oiñ tabernaik ez dau. Gure lengusu bat zeon ezkontuta, gizonan lengusu bat, Elortzako, Elortza, Teillarten Elortzako. Aseginolaza, Zezilio Aseginolaza, angoa alabakin ezkontuta zeona, da taberna zeukien, eta, ba saldatzea sartu giñen, nere gizonak baxoerdiñ bat-*eo*. Ene, ikusi gendutzen andre, “gaur geldittu bear dezue ba”, “zeba”, ta “ezkaluk dauzket oso goxok!”. “Oso goxok, eta oitxek jan bear dituzue”, ta ez ez ba, ni jun in bear nola, nik nere ordue neuken-da, jun in bear nola. Baietz bealaxe serbittuko ziula ta bealaxe (...) Ezkaluk jan eraiñ

*tziun, eta ondo, gustora, baiño andik etorri in bear tzon, emen (...), etorri in bear tzon, eta ordue pasauta aillau nitzen. Eta beno, esan nien, ze pasa zan-da, bueno, familikok-eta, konprendittu zuen. Baiño nere aurretik eon tzan neskea, Santa Maiñatik, Santa Maiñako fiestan etxea etorri, kuadrillan etorri men tzien, kantu baten, da iji ta aja. Neska ta mutil, eta ezkonduk' e baita, kuadrilla ikaragarrin bat. Danak etorri die, eta etxea etorri ta atea itxita. Atariko atea itxita, aldabea jo, “nada”, berriz jo, “nada”, gero bere etxea, amana, jun tzan. Eta urrengo goizen etorri omen tzan da, ta “quedas despedida”. “Que pasa?”. Minutu batzuk geroxo aillau zalako, “despedida”. Ta nik' e ori neuken, bildurre, ba nere aurretik eon tzan neskamea, gero ni sartu nitzen. Eta ez, konprendittu zuen, esplikau nien-da. Obligauta bezelaxen ba jan giñutzen ezkalu orik, klaro lengusuk-eta. Ori pasa zan, baiño olaxe ibili giñen, gaztetan....” (MUA, 2003-10-10)*

**Festáleku, festálekue:** *izond.* Festalekua. Sona handiko festak antolatzen diren lekua. JBA-ak dio, Zegama, lehen behintzat, *festalekue* zela. (JBA)

**Fiau:** *ad.* Fidatu./ *Ez dao bate fiatzeik.* Ez dago batere fidatzerik. (JBA, 2000-02-24)/ *Ez dala fiatzen.* Ez dela fidatzen. (JBA, 2004-08-13)

**Fiesta, fiesteá:** (ik. **Festa**)

**Filéte, filétea:** *iz.* Xerra./ *Filetea.* Xerra. (JBA, 2003-08-16) (sinonimoa **Txarrrada**)

**Finkéri, finkérie:** *iz.* Finkeria, fintasan gehiegi duen gauza./ *Finkerie.* Finkeria. (Hitz egindakoa betetzeko *finkerie* behar dela adieraziz) (JBA, 1999-10-16)

**Firmau:** *ad.* Sinatu./ *Firmauik izango zon.* Sinaturik izango zuen. (JBA, 2005-03-26)

**Fist!**: *Onom.* Fist, berehalako ekintza adierazteko onomatopeia./ *Fist! Fist!* (Galeper batek nola aldegin zien azalduz) (JBA, 2004-02-01)

**Flákau**: *ad.* Argaldu./ *Flakauta.* Argalduta. (JBA, 2004-04-03)

**Flakí, flakíe**: *iz.* Flakia, ahultasuna./ *Flakik emanda neon-da.* Flakiak emanda nengoen-eta. (Mariaje UB-k entzuna: JBA, 2005-01-20)

**Fláko, flákoa**: (ik. **Plako**)

**Flakósta, flakóstea**: *iz./izond.* Flakosta, argala./ *Flakoste.* Flakosta. (Katuaren gainean) (ik. **Plakau**) (JBA, 2000-10-07)/ *Flakosta ori.* Flakosta hori. (Pertsona baten gainean) (JBA, 2001-12-01)/ *Mutil flakosta.* Mutil flakosta. (JBA, 2004-01-10)

**Fléma, flémea**: *iz.* Flema./ *Flemek bota atun.* Flemek bota ditin. (JBA, 2003-06-07)

**Fónða, fónðea**: *iz.* Fonda./ *Fondaak.* Fondak./ Izen honekin deitzen zitzairen frantzestera garaian, Arrobi barrenean jarriri ziren egilehor moduko batzuk. Bertan kanpoko langileak bizi omen ziren. (JUA, 2002-01-12)/ (•)

**Fórma, fórmea**: *iz.* Forma./ *Formea emateko.* Forma emateko. (JBA, 2004-05-29)

**Formál, formála**: *izond.* Formala, zintzoa./ *Formalentxoena.* Formaltxoena. (JUA, 2001-12-15)

**Fórmäu**: *ad.* Sortu./ *Ude formatzen da.* Ura sortzen da. (JBA, 2002-03-02)/ (sinonimoa **Sortu**)

**Formoi, formoia**: *iz.* Tre. Trintxa, harrotzak egurra lantzeko erabiltzen duen tresna./ *Formoia.* Trintxa. (JBA, 1998-03-19)

**Forrau**: *ad.* Oihal batez gainestali./ *Forrauta.* Forratuta. (Arbaldako bigungarria bilduta egoten zela adierazteko) (JBA, 2002-03-02)

**Forronéro, forronéroa**: *iz.* Lurrunezko trenetan ikatza botatzen zuen langilea, espainierazko "fogonero" hitzetik./ *Forroneroa.* (JUA, 2002-01-12)

**Fotógrafi, fotografía**: *iz.* Argazkia./ *Fotografiñ'e badaok.* Argazkian ere bazagok. (JBA, 2008-01-05)

**Fraile, frailea**: *iz.* Erl. Fraidea./ *Lenengo fraile eon tzan...* *fotografie fraile jantzín...* utzi in zion frailetzai... Lehenen-



› **FESTALEKUE.** Zegama festalekutat joa izan da betidanik. (AA, 2005-08-07)

go fraide egon zen... argazkia fraide jantzian... utzi egin zion fraidetzari. (JBA, 2002-12-27)/ *Frailleta.* Fraideetara. (Brinkolako gizon batek zionez bere seme guztiak lanean zituen: bata arotza, bestea fraideetara, beste bat etxean...) (JUA, 2000-12-02)/ Garai batean, Brinkolan hiru fraidegai izan ziren eta Telleriarten beste bi. Fraide egiteko oso gertu ziren, *abituk jantzita zeren*, baina utzi egin zuten. (JBA, 2004-05-12)/ *Fraillek ezkondu zien... ze esan zaen ba fraillek... ordun 'e fraillek zerean.* Fraideek ezkondu zitean... ze esan ziotean ba fraideek... orduan ere fraideak zeudean. (JUA, 2004-05-22)

**Frantsesτέρα, frantsesτέρα**: *iz.* Frantsesaroa. Frantzia eta Italiako langileak trenbidea egiten aritu zireneko urte multzoa./ *Frantsesτέρα.* Frantsesaroa. (Mariaje UB-k entzuna aurretik) (JUA, 1999-12-29)/ *Amandreak, frantzesteran frantzies izten batzuk ba men tzekitzen.* (MUA, 2003-04-11)/ *Frantsesτέρα.* Frantsesaroa. (JUA, 2002-06-15)/ (aldaerak **Frantzestera**; **Frazestera**) (ik. **Karrillero**)

**Frantzestéra, frantzestérea**: (ik. **Frantsesτέρα**)

**Frántzi, frántzie**: (ik. **Frantzi-gaztaiña**)

**Frantzi-gaztaiña, frantzi-gaztaiña**: *iz.* Bot. Frantzia gaztaina, gaztainondo mota./ *Frantzi-gaztaiña.* Frantzia gaztaina. (JBA, 2001-12-29)/ *Frantzie.* Frantzia gaztaina. (JBA, 2002-03-21)/ *Frantzie esaten tzikona gaztaiña argigoa ta gosogoa,* besteen aldean. (JUA, 2003-03-01)/ (aldaera **Frantzi**) (ik. **Gaztaiña**)

**Frantzi-ipar, frantzi-iparra**: *iz.* Meteorol. Frantzi iparra./ *Frantzi-iparra.* Frantzi iparra. (JUA-k ez ditu bereizten iparra eta frantzi iparra) (JUA)/ (ik. **Ipar**)

**Franzestéra, franzestérea**: (ik. **Frantsesτέρα**)

**Franziskáno, franziskánoa**: *iz.* Erl. Frantziskotarra, fraide ordena./ *Franziskanok.* Frantziskotarrak. (JBA, 2005-01-15)

**Fregádera, fregádeera**: (ik. **Pregadera**)

**Frégau**: *ad.* Garbitu, zorua garbitu edota ontziak garbitu./ *Fregau-pasara bat.* Fregatu pasada bat. (Zoruko hautsa garbitzeko) (JBA, 2004-08-14)

**Frénte, fréntea**: *iz.* Frontea, guda frontea./ *Frente bat.* Fronte bat. (JBA, 2003-04-04)

**Frénu, frénu**: *iz.* Tre. Frenua, galga./ *Frenue izaten tzan.* Frenua izaten zen. (Gurdi frenuaz) (JBA, 2006-04-17)

**Freskéra, freskérea**: *iz.* Tre. Freskera./ *Freskerea.* Freskera. (Garai batean, odolkiak eta txerriki batzuk toki honetan gordetzen ziren) (JBA, 1999-11-28)

► *Grab. Freskerea:* "Freskerea, lenau izaten zan freskerea. Eoten tzan etxen, etxen lekuik fresko baten. Eta egurrekin eĩndako olako kuadroko... kuadroko zee bat, gauza bat. Eta gero jartzen tzikon, ba sarea 're jartzen tzikon. "O sea", freskurea sartu dein. Da aragie-ta antxe eukitzen tzan. "O sea ke", usaidun aragin jan in bear lenao, oiñ frigorifikon obeto konserbatzen die baiño. Orri esaten tzikon freskerea. Egurrekiñ eĩndako kuadroko gauza ta gero sarea eukitzen tzon, ba sartu daikion freskurea-eta etxen. Etxe leku baten, ba freskoan zeon leku baten, kanpon gaiñea eukitzen tzan. Ez taki". Haragiak bakarrik gordetzen al ziren?: "Aragie ta arraie 're bai. Arraie 're bai. "O sea" ke, lenao etzeon oiñ bezela, aste guziko, amabost euneako ekartzeik, zeaik. Bestela usaie iten tziñen-da, eun gutitako da ala 're naiko lan izaten tzan lenao". Noiz kendu ziren freskerak?: "Oin dala



› **FORMOIA.** Egurra lantzeko tresna. (Maria Jesus Ugalde, 2009)

## FRESKURA

*ba, berroei urte-o, berroetamarrea-eo, ola, beintzet bai.Orduako beintzet bai*" (JBA, 2002-01-26)

**Freskúra, freskúrea:** *iz.* Freskura./ *Freskuran eon.* Freskuran egon. (JBA, 2004-08-10)

**Fríto, frítoa:** *iz.* Frijitua, jaki mota./ *Seiña fríto.* Seiña frijitu. (JBA, 2008-05-17)

**Frontoi, frontoia:** *iz.* Frontoia./ *Frontoia.* Frontoia. (JBA, 2004-12-03)

**Frúta, frútea:** *iz.* Fruitua./ *Frutea.* Fruitua. (JBA, 2003-08-16)/ (sinonimoa **Frutu**)


**Frutál, frutála:** *iz. Bot.* Fruitu arbola./ *Frutalak.* Fruitu arbolak. (JBA, 2004-02-01)

**Frútu, frútue:** *iz. Bot.* Fruitua./ *Frutue.* Fruitua. (Barazkien uztaz ari da) (JBA, 1996-09-07)/ *Ok ttuk frutuk?* Hauek dituk fruituak? (Fruitu arbola baten fruituen gainean) (JUA, 2002-10-05)/ *Fruta lurrek ttuk ok.* Fruta lurrak dituk hauek. (Hemen fruitu arbolek duten ugaritasuna azpimarratuz) (JUA, 2003-03-30)/ (sinonimoa **Fruta**)

**Fúbol, fúbola:** *iz.* Futbola, kirol mota./ *Fu-*



› **FRUTUE.** Pikondoaren fruitua, pikua. (AA, 2007-10-20)



› **FRESKEREA.** Freskeraren marrazkia. (Maria Jesus Ugalde, 2009)

*bol ta olako zeaik.* Futbol eta horrelako zerarik. (JUA, 2003-06-28)

**Fúdre, fúdreia:** *iz. Tre.* Barrika mota handia./ *Fudrea.* (JBA, 1999-05-08)/ Ardoa trenetan eramateko izaten ziren barrika handiak. (JBA, 2002-01-20)

► *Grab. Fudrea:* "Fudrea. Lenao ardok eta ola ekartzen tzien zean, bagoietan. Eukitzen tzuen barrika aundi bat, barrika aundi bat zeukien bagoiak enda gero ba aik ustu itten tzien. Izaten tzien oin bezela dendarik-o, almagrenak zeuzkienak eta ola. Emen ez takit, emen ez baiño, emen Brinkolan Oñatira asko zea eitten tzien, ola, ardo almagrenak-eta zeuzkienak, ustu fudrea. Bagoian etorrira, barrika aundi bat izaten tzan" (JBA, 2002-01-20)

**Fuerte, fuertea:** *izond.* Indartsua./ *Fuerteana.* Indartsuena. (JBA, 2008-07-19)

**Fuertetu:** *ad.* Indartu./ *Fuertetu.* Indartu. (JBA, 1999-05-15)/ (sinonimoa **Indartu**)

**Fumátzaille, fumátzaillea:** *iz.* Erretzaillea, tabako erretzaillea./ *Fumatzaille.* Erretzaille. (JBA, 2007-05-12)

**Fúmau:** *ad.* Erre, tabakoa erre./ *Fuma ta fuma ibiltze ittu...* Fumatzeko. Erre eta erre ibiltzen ditun... Erretzeko. (JBA,

2006-02-11)/ *Fumau...* fumatzen. Erre... erretzen. (JBA, 2007-05-12)

**Fundámentu, fundámentue:** *iz.* Fundamentua, gauzak egiteko arreta eta gogoia./ *Fundamentu.* Fundamentu. (JBA, 2006-08-12)

**Fundítu:** *ad.* Galdatu, urtu./ *Funditzea.* Urtezera. (JUA, 2003-12-26)

**Fundizio, fundizioa:** *iz.* Galdategia./ *Fundiziora.* Galdategira. (JUA, 2003-12-26)

**Funtzio, funtzioa:** **1.** *iz.* Funtzioa, elizkizuna./ *Funtzioa.* Funtzioa. (JBA, 2003-03-01)/ *Eliz-funtziota.* Eliza funtziotarra. (JBA, 2007-04-08)/ **2.** *iz.* Funtzioa, eginkizuna./ *Funtzio ori zon.* Funtzio hori zuen. (JBA, 2005-03-05)/ *Funtzio ori eingo do orrek.* Funtzio hori egingo du horrek. (Gauza baten eginkizunaz) (JBA, 2002-03-21)

**Fusiláda, fusiládea:** *iz.* Fusilatua, fusilarekin botatuko tiro sorta./ *Fusilada.* Fusilatua. (JUA, 1999-08-23)

**Fusill, fusille:** *iz. Tre.* Fusila, suzko arma./ *Fusillen balak.* Fusilen balak. (JBA, 1999-02-12)